



12. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida
Alarma Egoeraren 12. eguna. 2020ko martxoaren 27a, ostirala

Kudeaketa / Osteguneko –26ko– jarduerak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Espero dugu aterpe edo antzeko gehiago irekiko direla, urgentziaz, kalean jarraitzen duten hamarnaka lagun sorosteko, eta une honetan *Atano* frontoian jarraitzen dutenak leku horietara eramateko. Beharrezkoa litzateke, halaber, *Atanon* banakako kutxatilak jartzea, han dauden lagunek beren gauzak gorde ahal ditzaten, bai intimitateagatik, bai erosotasunagatik eta bai beste arazo batzuk ekiditeko.

Atsegin eta esker onezko adierazpenak jaso ditugu bi aterpeetan ostatu hartuta dauden gazteengandik, bai Sareak egiten dituen gestioengatik, bai dauden instalazioengatik eta langile eta boluntarioek ematen dieten tratuagatik. Zorte oneko sentiarazten ditu horrek. Horra hor onartuak direla sentitzeak ematen duen ongizatea. Beharrezkoa da haiekin lanean jarraitzeko.

ELIKAGAIAK. Elikagaien beharra aseta ikusten dutenek esker ona erakusten dute, eta halaxe jakinarazten digute. Atzo, ikastetxe bateko 14 familiena jakinarazi zigun batek: *Eskerrak eman nahi dizkizut oso azkar ari zaretelako. Atzo gauean familia batek deitu zidan, esateko jarriak zirela berekin harremanetan, eta oso eskertuta zeudela horregatik.* Auzoetatik egiten den banaketaren kasuan ere, telefonoz jakinarazi ziguten zein eskertuta dauden boluntarioek eramaten dietelako.

Komunikazioa. Sareetan eta komunikabideei zabaldu zaie 11. Buletina.

BALIABIDE BOLUNTARIOEN ESKAERA ETA ELKARTASUNEZKO ERANTZUNAK

Dirudienez, **Ertzaintzak egiten duen elikagai-ekarpena egonkortu egingo da.** Atzo ere beste elikagai-partida bat bidali ziguten. **Elikagai Bankuak** gure esku jarri zuen elikagai-kantitate bat. Horrez gainera, **Zurriola Ikastolak 500 jogurt eman zizkigun** atzo.

Atzo hasi zen funtzionatzen **auzoetan elikagaiak banatzeko sarea**. Horrek, modu zentralizatuan egindako banaketekin batera, banaketa hobeto egiteko bidea ematen digu. Une honetan, Intxaurren, Altza, Amara, Parte Zaharra, Gros, Egia, Añorga eta Antigua ari gara banatzen elikagaiak. Erreterian eta Pasaian ere bai, kasuren batean, modu zentralizatuan egiten dugunaz gainera.

Elkartasunezko diru-ekarpenari dagokionez. 125 lagunek bederatzi egunetan emandako dirua: 7.187 €. Elikagaiez gainera, behar diren beste produktu batzuk erosten ditugu, ematen dizkigutenen osagarri. Esate baterako, atzo dutxarako gailu bat erosi genuen, 50 €-ko kostukoa, abandonaturiko etxe baterako, non zenbait gazte bizi baitira kanilako urik gabe. Gauza bera butano-bonbonak betetzeari dagokionez.

Ostatuen laguntzari dagokionez, Gandariasek eta Pandorak egunero egiten dute ekarpena.

Sakelakoak behar ditugu oraindik ere.



12. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Biharamunerako pilulak. Ba al dakigu nor diren pertsona etxegabe horiek? Zer-nolako beharrak dituzten? Zer eskubide? Zer ilusio? Zer trebetasun? Zer laguntza eman diezaiekegun? Horiek azalduko ditugu buletin hauetako ***Biharamuneko pilulak*** atalean.

1. PILULA

ATERPEA IZATEKO ESKUBIDEA

Hemen daude. Badugu argazkia. **Badakigu nor diren.** Konfinamendu-egunotan ondo jarduten badugu, asko jakin dezakegu bakoitzari buruz. Gurekin lehendik ditugunekin, ezagutza oso dezakegu. Gizarte-zerbitzuen sareetatik kanpo zeudenek oso informazio baliotsua eman dezakete. Urrearen pare balio digu horrek **abiapuntu** gisa. Eta **konfiantza-harremanak** sakontzeko aukera ematen digu.

Kale Gorrianen hainbat ekinbidek (udalek bi urtez behin egiten duten zenbaketa, gaueko boluntarioen laguntzaz, jakiteko zenbat lagunek egiten duten lo kalean) oso datu partzialak ematen zituzten, eta orain, berriz, hortxe ditugu, ondo osatuta. Eta hiriburu eta herri nagusi guztietan. Baliatuko al ditugu?

Hasieran, oinarritzko ekipamendu-sarea **aterpeak** dira. Beste erabilera baterako pentsatutako ekipamenduak dira, baina, salbuespenezko egoera hau dela-eta, **beste era batzuetan erabil daitezke bestelako baliabideak lortu bitartean**. Baliabideok ez daude pentsatuta egonaldi luzeetarako, baina abiapuntu egokia dira. Bestelako edozein baliabidek kontuan izan behar ditu **oinarritzko kontu batzuk**: Masifikaziorik ez: gehienez ere, 25 laguneko taldeak. Herrigune eta hiriguneetatik gertu. Intimitaterako txokoekin. Egokiak, ezaugarri jakin batzuk dituztenak, seme-alabak dituzten familien, emakumeen eta abarren kasuetarako. Elikatze-beharrak aseko dituztenak. Behar diren profesionalen arreta izango dutenak.

Luzerako disfuntziorik sorrarazi nahi ez bada, **une honexetatik ekin behar zaio eta planifikatu behar da eginkizun hau**. Ezin gaitezke zain egon, beste hainbatetan bezala, arazoek esku artean eztanda egin arte. Lekua egin behar zaie **aurrekontuetan**. Atzo, milioi askoko partidak onartu ziren zenbait kolektiborentzat; tartean, aterperik gabeko pertsonentzat. Eta aterperik gabeko horiek sorosteko behar den dirutza zailtasun handiegirik gabe sar daiteke partida horietan.

Baina **horrek guztiak zera eskatzen du aurrez**, pertsona horiekin lan egin nahi izatea. **“Ez dugu inor bazterrean utziko”** esaldia, askotan entzuna iraganean, hala Lehendakariagandik nola arduradun politiko askorengandik, eta egunotan ere maila guztietan errepikatua, ez izatea esaldi hutsa, ez izatea pose bat. Gure kasuan, sinesten dugu esaldia. Eta haien kasuan?

Ez al dute pentsatuko kalera botatzea alarma-egoera amaitu ondoren?

Erantzungo al dio galdera horri agintedunen batek?

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Harremanak: redacogidaciudadana@gmail.com

675 71 53 15

Dohaintzak: k.tea: ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, bidaliezazkiguzu ekarpenak, iradokizunak, salaketak.